


Euskadiko merkataritza- asoziazionismoa

Pandemia osteko bilakaera 2020-2023



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,
COMERCIO Y CONSUMO

Azterlan hau Eusko Ganberetako talde teknikoekin lankidetzan egin da, Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailarekin Merkatarien Elkarteen Errolda kudeatzeko sinatutako lankidetzeta-hitzarmenaren esparruan, 184/2015 Dekretuak aldatutako Euskal Autonomia Erkidegoko 148/1997 Dekretuarekin bat etorritu eta erroldan jasotako datuetan oinarrituta.



Aurkibidea

1. Sarrera	7
2. Azterlanaren Eremua: Elkarleen Tipologia	9
3. Azterlanaren Metodologia	11
4. Lurraldeko Asoziazionismoa. Eskualdeko Elkarleak	13
4.1. Lurraldeko Asoziazionismoa Araban	13
4.2. Lurraldeko Asoziazionismoa Bizkaian	17
4.3. Lurraldeko Asoziazionismoa Gipuzkoan	21
4.4. Lurraldeko Asoziazionismoa Euskadin	25
5. Gremio-Asoziazionismoa	29
5.1. Gremio-Asoziazionismoa Araban	29
5.2. Gremio-Asoziazionismoa Bizkaian	31
5.3. Gremio-Asoziazionismoa Gipuzkoan	33
5.4. Gremio-Asoziazionismoa Euskadin	35
6. Euskadiko Merkataritzako Federazioak	37
6.1. Merkataritzako Federazioak Araban	39
6.1.1. AENKOMER Arabako Merkataritzako eta Zerbitzuetako Enpresarien Federazioa	39
6.1.2. Arabadendak. Arabako Merkataritzako eta Zerbitzuetako Enpresarien Federazioa	41
6.1.3. AEKO. Aiaraldeko Enpresen Koordinaziorako Federazioa	43
6.2. Merkataritzako Federazioak Bizkaian	45
6.2.1. CECOBI. Bizkaiko Merkataritzako Enpresari Konfederazioa	45
6.2.2. BIZKAIDENDAK. Bizkaiko Merkataritza, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarleen Federazioa	47
6.3. Merkataritzako Federazioak Gipuzkoan	49
6.3.1. FMG. Gipuzkoa Merkataritza Federazioa	49
6.3.2. DENDARTEAN. Gipuzkoako Merkataritza, Ostalaritza, Zerbitzu Enpresa eta Autonomo Elkarleen Taldea	51

6.4. Merkataritzako Konfederazioak	53
6.4.1. EUSKOMER	53
6.4.2. EUSKALDENDAK	54
6.4.3. EUSKOMER ETA EUSKALDENDAK	55
7. Euskal Hiriburuetakako Hiri-merkataritzako Plataformak	57
7.1. GASTEIZ ON	59
7.2. BILBAO DENDAK	61
7.3. SAN SEBASTIÁN SHOPS	63
8. Merkataritza-Asoziazionismoa Euskadiko Udalerrietan	67
8.1. Udal-Asoziazionismoa. Araba	67
8.1.1. Eskualdeko Asoziazionismoa. Araba	70
8.1.2. Gremio-Asoziazionismoa. Araba	70
8.1.3. Elkarterik Gabeko Udallerriak. Araba - Álava	72
8.2. Udal-asoziazionismoa. Bizkaia	73
8.2.1. Eskualdeko Asoziazionismoa Bizkaiko Udalerrietan	77
8.2.2. Gremio-Asoziazionismoa Bizkaiko Udalerrietan	79
8.2.3. Elkarterik Gabeko Udallerriak. Bizkaia	82
8.3. Udal-Asoziazionismoa. Gipuzkoa	85
8.3.1. Eskualdeko Asoziazionismoa Gipuzkoako Udalerrietan	89
8.3.2. Gremio-Asoziazionismoa Gipuzkoako Udalerrietan	91
8.3.3. Elkarterik Gabeko Udallerriak. Gipuzkoa	94
8.4. Udal-Asoziazionismoa Euskadin. Datu Nagusiak	95
9. Eskualdeko Elkarteen Ordezkarritasuna	97
9.1. Eskualdeko Elkarteen Ordezkarritasuna Araban	97
9.2. Eskualdeko Elkarteen Ordezkarritasuna Bizkaian	100
9.3. Eskualdeko Elkarteen Ordezkarritasuna Gipuzkoan	117
10. Gremio-Elkarteen Ordezkarritasuna	129



1. Sarrera

XII. legegintzaldian onetsitako 2030erako Euskal Merkataritzaren Estrategiak euskal merkataritza-sektoreari zuzendutako politika publikoak bideratu behar dituzten eta ekintza-planetan islatu beharreko ildo estrategikoak ezartzen ditu.

Estrategiak printzipio batzuk ditu oinarrian; besteak beste, enpresak sektorearen eraldaketaren erdigunean kokatzea eta haien konpromisoa eta erantzukizuna sustatzea daude. Enpresa-ingurune dinamiko bat sustatu nahi du, non politika publikoak enpresei laguntzera eta enpresak eraldatzeko beharrezkoak diren tresnak ematera bideratuko diren, betiere enpresak berak izanik aldaketaren protagonistak. Era berean, sektorearen hibridazio gero eta handiagoa aurreikusten du, merkataritza eta merkataritza-jarduerarekin lotutako zerbitzuak pixkanaka-pixkanaka hiri-ekonomiaren kontzeptuaren inguruan integratzen joateko.

Estrategiaren zutabeetako bat lan partekatu eta sinergikoaren bidez landutako erakundearteko gobernantza transbertsala da. Sistema konplexua da merkataritza-sektorea, bai eta sentikorra ere hainbat eragile instituzionalek (sektorialek eta lurraldeetakoek) hartzen dituzten erabakiekiko. Enpresaren ikuspegitik, gainera, oso atomizatuta dago, eta elkarten dinamiketan bermatuta. Bultzatu eta hobetu beharreko ezinbesteko eredua da erakunde mailan irekia den eta eragile publiko horiekin koordinatuta dagoen Gobernantza, sektoreko ordezkari pribatuekin lankidetzan aritzen dena.

Merkataritza-sektoreak, atomizatuta dagoen aldetik, tresna natural bihurtzen du asoziazionismoa. Baina, asoziazionismo hori hobetzeko, elkarre-mota biziak, oinarri zabalekoak eta parte-hartze aktibokoak sustatu behar dira, elkarten arteko lankidetzagiro kolaboratiboaren eta eraginkorraren esparruan, lankidetzagiro publiko-pribatu berrien inguruan kobernantza-bideak eta -mekanismoak ahalbidetzeko.

COVIDaren pandemiak eta pandemiaren ondorioz hartu behar izan ziren neurriek inpaktu gogorra izan zuten merkataritza-sektorean, bai eta Ukrainako gerraren ondoriozko krisiek, hornidura-faltak eta abarrek ere; baina, halaber, agerian jarri zuten, nabarmen jarri ere, merkataritza-elkarrekin zeregin garrantzitsua dutela sektorearen aurrean, eta elkarriketa-ahalmena dutela Administrazioekiko, ahaleginak partekatuz.

Euskal Autonomia Erkidegoko 148/1997 Dekretuak –gerora 184/2015 Dekretuak aldatuak– Merkataritza Elkarrekin Errolda sortu zuen, elkarrekin sektorean duten ordezkagarritasuna ebaluatzeko, haiekiko elkarriketa bultzatzeko eta asoziazionismoaren egoera hobeto ezagutzeko aukera emateko, elkarten helburua sektoreko enpresen lehiakortasuna hobetzera bideratzen dela ulertuz.

Azterlan honetan, 2020tik 2023ra bitartean –pandemiaren ondorengo aldia, beraz– Elkarrekin Erroldaren datuetan oinarrituta egindako analisiaren emaitzak erakutsi nahi dira.

Kontuan hartu behar da, nolanahi ere, elkarrekin egindako deklarazioetatik jaso direla datuak –ondoren egiaztatu gabe–, bai eta Euskadin elkarrekin artean dauden asoziazionismo-ereduetatik ere –elkarrekin partaidetza ekonomikoa behar dutenak, kuoten bidez eta laguntza publikoetatik datozen beste batzuen bidez–. Hala, azterlan honek eskainitako datuek besteak beste honako hauek azalertzeko aukera emango digute:

- EAEko udalerrietan eta lurraldeetan dagoen asoziazionismorako joeraren bilakaera.
- Elkarrekin Erroldan erregistratutako elkarrekin, federazio eta hiri-merkataritzako plataforma bakoitzaren bilakaera eta ordezkagarritasun-maila.
- Hibridazio sektorialaren maila merkataritza-asoziazionismoan.

Emitza horiek Euskadiko asoziazionismoaren bilakaera ezagutzeko, elkarrekin ordezkagarritasuna ebaluatzeko eta egiazko adierazleak lortzeko aukera emango dute, guztia ere sektoreko politika publikoak gidatzeko eta indartzeko helburuarekin.

2. Azterlanaren Eremua: Elkarteen Tipologia

Merkataritza-asoziazionismoak hainbat tipologia ditu, ezaugarri desberdinen arabera:

- Integrazioa: kontsumo-kooperatibak (Eroski...), kate sukurtsalistak (Expert)...
- Enpresa-asoziazionismoa: xehekarien kooperatibak (Udaco...), borondatezko kateak (SPAR...), frankiziadun kateak (Natur House...)...
- Eskualdeko asoziazionismoa: Hiri/herrietako merkatarien elkarteak (Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkartea - Berriak...), auzoetako merkatarien elkarteak (Deusto Bizirik merkatarri-elkartea...)
- Gremio-asoziazionismoa: Sektore-elkarteak (Arabako pastelgile eta gozogile artisauen Elkartea...).

Tipologia horiek, gainera, bi kategoriatan bildu daitezke:

- Integrazioa eta enpresa-asoziazionismoa kontratu pribatuek araututako aliantzak ezartzean oinarritzen diren estrategiak dira, eta, beraz, itxiak dira.
- Eskualdeko asoziazionismoa eta gremio-asoziazionismoa kontratu-erregulaziorik gabeko baina estatutu-erregulaziodun borondatezko atxikimenduetan oinarritutako estrategiak dira, eta, beraz, irekitzat har daitezke.

Azterlan honen eremua irekiak eta borondatezkoak diren eskualdeko elkarteek eta gremio-elkarteek osatutako bigarren kategorian oinarrituko da.



3. Azterlanaren Metodologia

Azterlana egiteko, tresna hauek erabili dira:

- Jarduera Ekonomikoen Direktorioa: establezimendu eta enpresa guztiei buruzko informazioa jasotzen du, EAEn jarduera ekonomikoak egiten dituzten unitate gisa. Kasu honetan, Euskadiko udalerrietan jarduten duten establezimenduen kopuruari eta jarduera ekonomikoari edo EJSNari buruzko datuak emango dizkigu.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Elkarten Errolda (aurrerantzean, Errolda). Borondatezko inskripziokoa den errolda horretan, eskualdeko elkarteetan eta gremio-elkarteetan nahiz hiru lurralde historikoetako federazioetan integratutako establezimenduen zerrenda jasotzen da. Elkarte bakoitzak, besteak beste, establezimendu elkartu bakoitzaren izen komertziala, helbidea, telefonoa eta JEZ ematen ditu. Kontuan izan behar da elkartekideak merkataritza-establezimenduak edo saltokiak direla, eta ez enpresa bera; horrenbestez, enpresa batek zenbait saltoki izan ditzake elkartuta. Azken urteetan (2020tik 2023ra) Erroldan jasotako datuak erabili dira.

Eskualdeko elkarte gehienek “Dena delako lekuko Merkatarien Elkarte...” izena hartzen badute ere, elkarten osaera askotarikoa izaten da, eta handizkako nahiz txikizkako merkataritza, ostalaritza-enpresak eta zerbitzu-enpresak hartzen dituzte barnean. Hori horrela, elkarte bakoitzean lau azpisektore horiei dagozkien datuak identifikatzea izan da lehen urratsa, elkarteak bertako jarduera-eremuko merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan duen benetako ordezkagarritasuna aztertzeke.

Azpisektore bakoitzean EJZ hauek sartu dira:

- Handizkako merkataritza: 61**, 62**, 63**
- Txikizkako merkataritza: 64**, 65**, 66**
- Ostalaritza: 67**, 68**
- Zerbitzu-enpresa: Erroldako gainerako EJZak.

Bigarrenik, EAeko udalerrri bakoitzean dauden establezimenduen kopurua kontabilizatu da, EJSNren arabera sailkatuta eta aipatutako lau azpisektoreen arabera antolatuta. Azpisektore horietako bakoitzean EJSN hauek sartu dira:

- Handizkako merkataritza: 4531, 46**
- Txikizkako merkataritza: 4511, 4519, 4520, 4532, 4540, 47**
- Ostalaritza: 55**, 56**
- Zerbitzu-enpresa: 58**, 59**, 62**, 64**, 65**, 66**, 68**, 69**, 74**, 75**, 77**, 79**, 82**, 88**, 93**, 95**, 96** (Eskualdeko elkarteetan gehien agertzen diren zerbitzuen EJSNak bakarrik sartu dira).

Behean, horrela lortutako datu adierazgarrienak aurkezten dira.



CAUDALIÉ
50% Dto



CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

CAUDALIÉ

22,50
vitatur
MULTICOLLAGEN

MULTICUIDATE
CON 4 CAPSULAS AL DIA

vitatur

vitatur

vitatur

vitatur

¿Picaduras de insectos? El calor funciona!

bite away

bite away

bite away

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

LA DIFUSION

-100%

ANARÖM



BUENA DIGESTIÓN

BUENA DIGESTIÓN

BUENA DIGESTIÓN

BUENA DIGESTIÓN

BUENA DIGESTIÓN

BUENA DIGESTIÓN

30

30

30

30

30

30

30

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

350

4. Lurraldeko Asoziazionismoa. Eskualdeko Elkarteak


4.1. Lurraldeko Asoziazionismoa Araban

Beheko koadroan, Arabako elkarteetako kide diren establezimenduei buruzko datuak guztira eta elkarten ordezkagarritza-maila erakusten dira, azterlanaren urte guztietan.

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - ARABA 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideen kop.	26	985	662	406	2.079
Establezimenduak guztira	1.301	3.341	1.943	4.462	11.047
Ordezkaritasuna	% 2,00	% 29,48	% 34,07	% 9,10	% 18,82


Araba-Álava 2023



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - ARABA 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	24	970	622	427	2.043
Establezimenduak guztira	1.393	3.366	1.937	4.453	11.149
Ordezkaritasuna	% 1,72	% 28,82	% 32,11	% 9,59	% 18,32


Araba-Álava 2022



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - ARABA 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	21	962	486	364	1.833
Establezimenduak guztira	1.397	3.377	1.962	4.430	11.166
Ordezkarritasuna	% 1,50	% 28,49	% 24,77	% 8,22	% 16,42


Araba-Álava 2021



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - ARABA 2020



	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	13	588	264	249	1.114
Establezimenduak guztira	1.466	3.576	1.994	4.454	11.490
Ordezkarritasuna	% 0,89	% 16,44	% 13,24	% 5,59	% 9,70

Araba-Álava 2020



Arabako 2020tik 2023ra bitartean eskuragarri zeuden datuak aztertuz gero, ikusten da 2020tik aurrera gorakada handia egon zela (lehen adierazi dugun bezala, pandemian zehar elkarteek gauzatutako ekintzari eta administrazioen eta sektorearen artean krisiaren aurrean neurriak martxan jartzean izandako elkarrizketari egotz dakieke).


Ordezkarritasuna 2020an deklaraturako % 9,70etik % 16,42ra pasatu zen, eta % 18,32ra iritsi zen 2021ean. Kopuru hori 2023an lortutako % 18,82ko sabaitik gertu mantentzen da.



Ordezkarritasunaren hazkundera azpisektore guztietan gertatu zen. Txikizkako merkataritzaren kasuan, Arabako asoziazionismoaren ordezkagarritasuna 2020ko % 16,44tik hurrengo urteetako % 28,49ko eta % 29,48ko maila egonkortuetara pasatu zen (hala ere, kasu honetan kontuan hartu beharko da lurraldeko establezimendu guztien kopuruaren beherakadaren efektua).

Alabaina, Arabako elkarteek ostalaritzaren sektorean erregistratu zuten asoziazionismoaren hazkunderik handiena: 2020ko % 13,24tik 2023ko % 34,07ra pasatu zen, eta sektore horren goranzko joera mantendu zen lurraldean. Datu horrek azaldu egiten ditu lortutako guztizko ordezkagarritasun-zifra altuak (hein handi batean, sektore ez-komertzialetatik datozenak), eta merkataritza-elkarte direlakoan gaur egungo izaera mistoa indartzen du.

2023an elkartutako establezimendu guztien ehunekoa kontuan hartuz gero, ehuneko hauek lortzen dira:



Azpi-sektoreen arabera hazkunde desberdinen efektua argi eta garbi ikusten da datuen bilakaera aztertzean, 2020an eta 2023an erregistratutakoak taula honetan alderatuz:

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK ARABA 2020 eta 2023											
Araba	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		Aldakuntza 20-23
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	
Elkartekideak	13	26	588	985	264	662	249	406	1.114	2.079	% 86,62
Establezimenduak guztira	1.466	1.301	3.576	3.341	1.994	1.943	4.454	4.462	11.490	11.047	-% 3,86
Ordezkaritasuna	% 0,89	% 2,00	% 16,44	% 29,48	% 13,24	% 34,07	% 5,59	% 9,10	% 9,70	% 18,82	% 94,02
Hazkundera, puntu portzentualak	1,11 p.p.		13,04 p.p.		20,83 p.p.		3,51 p.p.		9,12 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 124,72		% 79,32		% 157,33		% 62,79		% 94,02		

Ostalaritzan gertatu zen aldakuntza portzentualik handiena, 264 elkartekideetatik 662 elkartekideetara pasatu baitzen Arabako ia 2.000 ostalaritza-establezimenduetan: hau da, % 157,33ko igoera (% 13,24ko ordezkaritasunetik % 34,07ko ordezkaritasunera igaro zen, 20,83 puntu portzentual gehiago 4 urtean).

Txikizkako merkataritzan, berriz, aldakuntza portzentuala % 79,32koa izan zen, eta ordezkaritasuna % 13,04 puntu portzentual gehiago hazi zen (2020ko % 16,44tik 2023ko % 29,48ra).

Azkenik, Arabako eskualdeko elkartekideen kopurua ere handitu egin zen aldi horietan: 1.114tik 2.079ra pasatu zen (% 86,62 gehiago). Hala ere, lurraldean dauden enpresen kopurua % 3,86 murriztu da guztira (11.490etik 11.047ra).


Horrek esan nahi du eskualdeko elkarrean ordezkaritza orokorra % 94,02 hazi dela. Ia azpi-sektore guztietan, fenomeno bera gertatu da: lehendik zeuden enpresen kopurua murriztu egin da, eta enpresa elkartuen kopurua handitu –zerbitzuen sektorean izan ezik, kasu horretan bi datuek gora egin baitute–.

4.2. Lurraldeko Asoziazionismoa Bizkaian

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - BIZKAIA 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	40	2.725	1.005	1.641	5.411
Establezimenduak guztira	5.367	12.978	7.041	19.079	44.465
Ordezgarritasuna	% 0,75	% 21,00	% 14,27	% 8,60	% 12,17


Bizkaia 2023



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - BIZKAIA 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	63	2.792	1.002	1.560	5.417
Establezimenduak guztira	5.618	13.408	7.065	19.313	45.404
Ordezgarritasuna	% 1,12	% 20,82	% 14,18	% 8,08	% 11,93


Bizkaia 2022



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - BIZKAIA 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	55	2.848	996	1.551	5.450
Establezimenduak guztira	5.768	13.724	7.142	19.563	46.197
Ordezagarritasuna	% 0,95	% 20,75	% 13,95	% 7,93	% 11,80


Bizkaia 2021



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - BIZKAIA 2020



	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	59	2.583	845	1.369	4.856
Establezimenduak guztira	6.197	14.501	7.262	19.743	47.703
Ordezagarritasuna	% 0,95	% 17,81	% 11,64	% 6,93	% 10,18

Bizkaia 2022



2020tik 2023ra bitartean eskura izandako datuak aztertuz gero, ikusten da Bizkaian ere gora egin zuela asoziazionismoak 2020tik aurrera –pandemian zehar elkarrekin egindako jarduketari egozteko modukoa–, baina hazkunde hori oso ahula da asoziazionismoaren zifra kontuan hartuz gero sektore guztietan.

Guztizko ordezkagarritasuna 2020an deklaraturako % 10,18koa izatetik 2021eko % 11,80koa izatera pasatu zen, eta % 12 inguruan egonkortu zen.




Bizkaian, azpisektoreek bilakaera desberdina izan zuten urte horietan.

Establezimendu elkartuen zifrei erreparaturuz gero, adierazgarria da, alde batetik, azken urteetan txikizkako merkataritzako establezimenduen kopuruak izandako jaitsiera; eta, bestetik, zerbitzuen hazkunde txikia, ostalaritza-establezimenduen egonkortasuna eta handizkako merkataritzaren beherakada.

Baina, horrekin batera, establezimenduen guztizko kopurua jaitsi egin zen, eta horrek dakar ordezkagarritasun-ehunekoek igoera txikiak izatea azken urteotan.

Horrela, ordezkagarritasunaren igoera ahula izan zen azpisektore guztietan, handizkako merkataritzan izan ezik. Txikizkako merkataritzan, Bizkaiko asoziazionismoaren hazkundera 2020ko % 17,81etik 2023ko % 21 inguruko maximoan egonkortzera pasatu zen. Ostalaritza, berriz, 2020ko % 11,64tik hurrengo urteetako % 14 inguruko maila egonkortuetara pasatuko litzateke. Zerbitzuek mantendu zuten goranzko hazkunde txikia: ordezkagarritasuna 2020ko % 6,93tik 2023ko % 8,60ra igo zuten.

Azpi-sektore bakoitzean 2023an elkartutako establezimenduen ehunekoa elkartekide guztien gain kalkulatu gero, hauek dira Bizkaiko datuak:



Aipagarria da Bizkaiko elkarteetako kide diren zerbitzu-establezimenduen ehuneko handia gainerako azpi-sektoreekin alderatuta.

2020tik 2023ra bitarteko datuen konparazioa eginez, ikusten da ordezkagarritasun-mailan lortutako aldakuntza portzentuala % 20 ingurukoa zela lau urte horietan.

Establezimendu kideen kopurua % 11,43 igo zen; aztertutako azpi-sektoreetako establezimenduen kopurua, berriz, % 6,79 jaitsi zen.

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDIAK - BIZKAIA 2020 eta 2023											
Bizkaia	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	Aldakuntza 20-23
Elkartekideak	59	40	2.583	2.725	845	1.005	1.369	1.641	4.856	5.411	% 11,43
Establezimenduak guztira	6.197	5.367	14.501	12.978	7.262	7.041	19.743	19.079	47.703	44.465	-% 6,79
Ordezkarritasuna	% 0,95	% 0,75	% 17,81	% 21,00	% 11,64	% 14,27	% 6,93	% 8,60	% 10,18	% 12,17	% 19,54
Hazkundera, puntu portzentualak	-0,20 p.p.		3,19 p.p.		2,63 p.p.		1,67 p.p.		1,99 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% -21,72		% 17,88		% 22,67		% 24,04		% 19,54		


Ordezkarritasunari dagokionez, ondoriozta dezakegu ezen, lurralde honetan pandemiaren ondoko urteetan beste lurralde batzuetan izandako asoziazionismoaren beherakada handia gertatu ez arren, txikizkako saltokien % 21 eskualdeko elkarteren batean integratuta daudela; eta, zentzu berean, ostalaritzako % 14,27, zerbitzuen sektoreko % 8,60 eta handizkako merkataritzaren % 0,75 (azken horiek ere enpresarien eskualdeko elkarteren batean sartzea erabaki dute).

4.3. Lurraldeko Asoziazionismoa Gipuzkoan

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPIZKOA 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	81	2.811	591	1.053	4.536
Establezimenduak guztira	3.039	8.700	4.445	11.624	27.808
Ordezgarritasuna	% 2,67	% 32,31	% 13,30	% 9,06	% 16,31


Gipuzkoa 2023



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPIZKOA 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	72	2.863	571	1.027	4.533
Establezimenduak guztira	3.249	8.929	4.423	11.764	28.365
Ordezgarritasuna	% 2,22	% 32,06	% 12,91	% 8,73	% 15,98


Gipuzkoa 2022



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPUZKOA 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	59	2.750	510	870	4.189
Establezimenduak guztira	3.344	9.086	4.408	11.852	28.690
Ordezkarritasuna	% 1,76	% 30,27	% 11,57	% 7,34	% 14,60


Gipuzkoa 2021



ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPUZKOA 2020

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	46	2.260	449	740	3.495
Establezimenduak guztira	3.467	9.758	4.498	12.073	29.796
Ordezkarritasuna	% 1,33	% 23,16	% 9,98	% 6,13	% 11,73


Gipuzkoa 2020




Gipuzkoan 2020tik 2023ra bitartean eskura zeuden datuak aztertuta, ikusten da, berriz ere, pandemiaren ondoko urteetan izandako igoera garrantzitsu hori. Igoera, nagusiki, pandemiaren ondoko krisietan elkarrekin izandako eginkizunari egotz dakiok: batetik, administrazioen arteko solaskide gisa jardun zuten, eta, bestetik, laguntza eman zieten merkataritza-enpresei lurraldearen eremuan, krisiaren aurrean mobilizatu ziren laguntzen ondorioz. Horrek une hartan merkataritza-sektorearen aurrean galtzen ari ziren ikusgarritasuna eman zien, eta, aldi berean, administrazioekiko elkarrizketa indartu zuen.

Elkartutako establezimendu-kopuruaren zifrei erreparatu gero, 2021eko igoeraren ondoren, ikusten da zifrak egonkortu egin zirela azpisektore guztietan –bereziki txikizkako merkataritzan–, eta hazteko joera txiki bat mantendu zela txikizkako merkataritzan izan ezik (2023an jaitsi egin zen).

Gipuzkoa 2020-2023 Elkarrekin izandako establezimendu kideen kopurua




Gipuzkoa 2020-2023 Ordezgarritasuna



Baina, horrekin batera, establezimenduen guztizko kopurua jaitsi egin zen, eta horrek dakar ordezgarritasun-ehuneko handiagoak lortzea azken urteotan.

Gipuzkoako ordezgarritasunaren hazkundea –elkartekide-kopuru osoaren arabera kalkulatu – 2020an deklaratuak % 11,73tik 2021eko % 14,60ra pasatu zen; 2022an % 15,60ra iritsi zen, eta 2023an gehieneko maila lortu zuen: % 16,31.

Azpi-sektore bakoitzean 2023an elkartutako establezimenduen ehunekoa elkartekide guztien gain kalkulatu gero, hauek dira Gipuzkoako datuak:



Azpimarratzekoa da Gipuzkoako azpi-sektoreen asoziazionismoaren profila beste lurraldeen aldean: Gipuzkoako eskualdeko elkartetako establezimenduen ehunetik handiena txikizkako sektoreari dagokio; zerbitzuen sektoreak presentzia handia du, eta ostalaritzak askoz ere txikiagoa (handizkako merkataritza ia anekdotikoa da).

Ordezkarritasun-gehikuntza kontuan hartuta, ikusten da ehuneko handietan gertatu zela zerbitzuen, ostalaritzaren eta handizkako merkataritzaren azpi-sektore guztietan. Nolanahi ere, Gipuzkoan nabarmena da txikizkako merkataritzaren ordezkarritasunaren hazkundera, 2020ko % 23,16tik –nahiko adierazgarria– 2021eko % 30,17ra pasatu baitzen; 2022an % 32,06ra igo zen, eta 2023an maximora iritsi zen (% 32,31).

2020ko eta 2023ko datuak dituen aldi horretako konparazio-taula aztertuz gero, argi eta garbi ikusten da txikizkako merkataritzaren ordezkarritasuna 9,15 puntu portzentual igo zela eta aldi horretan % 39,51 hazi zela elkartutako establezimenduen kopurua.

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPUZKOA 2020 eta 2023											
Gipuzkoa	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		Aldakuntza 20-23
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	
Elkartekideak	46	81	2.260	2.811	449	591	740	1.053	3.495	4.536	% 29,79
Establezimenduak guztira	3.467	3.039	9.758	8.700	4.498	4.445	12.073	11.624	29.796	27.808	-% 6,67
Ordezkarritasuna	% 1,33	% 2,67	% 23,16	% 32,31	% 9,98	% 13,30	% 6,13	% 9,06	% 11,73	% 16,31	% 39,05
Hazkundera, puntu portzentualak	1,34 p.p.		9,15 p.p.		3,32 p.p.		2,93 p.p.		4,58 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 100,75		% 39,51		% 33,27		% 47,80		% 39,05		

Eskualdeko elkartetako elkartekideen kopurua ere handitu egin zen aldi horien artean: 3.495etik 4.536ra pasatu zen (% 29,79 gehiago). Hala ere, lurraldean dauden enpresen kopurua % 6,67 murriztu zen guztira, 29.769tik 27.808ra pasatuz.

Horrek esan nahi du fenomeno bera gertatu zela azpi-sektore guztietan: dauden enpresen kopurua murriztea eta enpresa elkartuen kopurua handitzea.

4.4. Lurraldeko Asoziazionismoa Euskadin

Euskadin, elkarreetako establezimendu kideen kopuruak gorakada handia izan du 2020tik 2023ra bitartean (% 27,06). 2020an zeuden 9.465 establezimenduak 2023an 12.026 establezimendu izatera pasatu ziren (betiere eskualdeko elkarreet Euskal Autonomia Erkidegoko Merkatarien Erroldan deklaraturako datuen arabera).

Atxikitako 2.561 establezimendu berri horiek txikizkako merkataritzako, ostalaritzako eta zerbitzuetako azpisektoreetakoak dira nagusiki (lehenengoari 890 establezimendu dagozkie, eta 700 eta 742 establezimendu beste biei). Handizkako merkataritzak ere gora egin zuen elkartutako saltokien kopuruan (26 enpresa gehiago), baina beste azpisektoreen oso atzetik.

2.561 establezimendu elkartu berrien gehikuntza horrek, enpresen guztizko kopuruaren jaitsierarekin batera (5.669 gutxiago; % 6,37ko beherakada), elkarteen ordezkagarritasuna nabarmen igotzea eragin du (3,79 puntu portzentual 2020ko % 10,64ko ordezkagarritasunetik 2023ko % 14,43ko ordezkagarritasunera; hau da, % 35,70eko hazkundera Euskadin).


ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - EUSKADI - ESKUALDEKO ELKARTEAK 2020 eta 2023											
Euskadi	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		Aldakuntza 20-23
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	
Elkartekideak	118	147	5.431	6.521	1.558	2.258	2.358	3.100	9.465	12.026	% 27,06
Establezimenduak guztira	11.130	9.707	27.835	25.019	13.754	13.429	36.270	35.165	88.989	83.320	-% 6,37
Ordezkarritasuna	% 1,06	% 1,51	% 19,51	% 26,06	% 11,33	% 16,81	% 6,50	% 8,82	% 10,64	% 14,43	% 35,70
Hazkundera, puntu portzentualak	0,45 p.p.		6,55 p.p.		5,48 p.p.		2,32 p.p.		3,79 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 42,87		% 33,58		% 48,44		% 35,60		% 35,70		

Ordezkarritasun hori txikizkako merkataritzari dagokionez bistaratz gero, ikusten da Euskadi osoko ordezkagarritasuna 2020ko % 19,5etik 2021eko % 25,1era pasatu zela; 2022an % 25,8an egonkorta zela eta 2023an, azkenik, % 26,1ean mantendu zela.

Lurraldeei dagozkien ataletan ikusi den bezala, asoziazionismoaren hazkundera hori garrantzitsuagoa izan zen Araban eta Gipuzkoan Bizkaian baino; izan ere, horrek adierazten du elkartekideek elkarteen funtzionamenduan duten partaidetza ekonomikoaren eredu desberdinetan sakondu beharko dela.

Gipuzkoan, elkarreet deklaraturako ordezkagarritasuna % 32,31koa zen; % 29,48koa Araban, eta % 21ekoa Bizkaian.


Eskualdeko elkarten ordezkagarritasuna



Txikizkariak					
Ordezkarritasuna	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Euskadi	Euskadiko sektoreak guztira
2020	% 16,44	% 17,81	% 23,16	% 19,51	% 10,64
2021	% 28,49	% 20,75	% 30,27	% 25,05	% 13,33
2022	% 28,82	% 20,82	% 32,06	% 25,78	% 14,12
2023	% 29,48	% 21,00	% 32,31	% 26,06	% 14,44


Elkarteen ordezkagarritasunari buruzko datuekin batera, nabarmendu behar da, lurralde bakoitzeko datuen azterketan ikusi den bezala, eskualdeko elkarteek gero eta izaera mistoagoa dutela.

2023an azpisektore bakoitzean zeuden elkartutako establezimendu-kopuruaren zifrak kontuan hartuz gero, lortutako elkarten profilak erakusten du ezen, gehiengoa txikizkako merkataritzak osatzen badu ere, enpresa elkartuen kopuru handi bat zerbitzuen sektorekoa –edo, lurralderen batean, ostalaritzakoa– dela. Handizkako merkataritzaren presentzia ia anekdotikoa da.



Izaera misto hori denboran zehar aztertuz gero, zerbitzuen sektoreko establezimenduen ehunekoaren gorakada hori ikusiko dugu –neurri txikiagoan ostalaritzakoa–, eta txikizkako merkataritzaren beherakada.

Euskadiko asoziazionismoko azpisektoreak 2020-2023



Ondorio gisa, merkatarien eskualdeko elkarteen ordezkagarritasuna indartu egin zen 2020-2023 aldian (2023an % 14,43ra iritsi arte), establezimendu elkartu guztien datuetan oinarrituta eta betiere Merkatarien Erroldan deklaraturako datuen arabera. Horrela kalkulaturako ordezkagarritasuna % 26,06koa zen txikizkako merkataritzaren kasuan.



5. Gremio-Asoziazionismoa

Atal honetan, gremio-asoziazionismoaren edo enpresen lanbide-talde bidezko asoziazionismoaren (okinen gremioa, liburu-saltzaileen gremioa, etab.) errealitatea aztertuko dugu.

5.1. Gremio-Asoziazionismoa Araban

Beheko koadroan, Arabako elkarteetako kide diren establezimenduei buruzko datuak guztira eta elkarten ordezkagarritza-maila erakusten dira, azterlanaren urte guztietan.

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	0	250	188	176	614
Establezimenduak guztira	1.301	3.341	1.943	4.462	11.047
Ordezkaritasuna	% 0,00	% 7,48	% 9,68	% 3,94	% 5,56

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	0	264	195	181	640
Establezimenduak guztira	1.393	3.366	1.937	4.453	11.149
Ordezkaritasuna	% 0,00	% 7,84	% 10,07	% 4,06	% 5,74

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	0	203	112	179	494
Establezimenduak guztira	1.397	3.377	1.962	4.430	9.769
Ordezkaritasuna	% 0,00	% 6,01	% 5,71	% 4,04	% 5,06

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2020

	Handizkariak	Txikizkariak	Ostalaritza	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	0	174	0	141	315
Establezimenduak guztira	1.466	3.576	1.994	4.454	10.024
Ordezkaritasuna	% 0,00	% 4,87	% 0,00	% 3,17	% 3,14

2020ko eta 2023ko datuak erkatuz gero, ikusten da azken urteetan gora egin zutela bai bazkide-kopuruak, bai elkartutako enpresek, eta bai ordezkagarritasunak.

ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK ARABA 2020 eta 2023											
Araba-Álava	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	Aldakuntza 20-23
Elkartekideak	0	0	174	250	0	188	141	176	315	614	% 94,92
Establezimenduak guztira	1.466	1.301	3.576	3.341	1.994	1.943	4.454	4.462	11.490	11.047	-% 3,86
Ordezkarritasuna	% 0,00	% 0,00	% 4,87	% 7,48	% 0,00	% 9,68	% 3,17	% 3,94	% 2,74	% 5,56	% 102,74
Hazkundera, puntu portzentualak	0,00 p.p.		2,62 p.p.		9,68 p.p.		0,78 p.p.		2,82 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 0,00		% 53,78		% 100,00		% 24,60		% 102,74		

2 puntu portzentual baino gehiagoko gorakada ikusten da (% 2,74ko ordezkagarritasunetik % 5,56ko ordezkagarritasunera); hau da, ordezkagarritasunak % 102,74ko hazkundera izan zuen.

Elkartekideen guztizko kopuruak ere hazkunde handia izan zuen: ia-ia 2020. urtekoaren halako bi izatera iritsi zen (zehazki, % 94,92ko gehikuntza ikusten da elkartekide-kopuruan).

Azpi-sektore guztiek hazkunde nabarmena izan zuten, handizkako kasuan izan ezik (azpi-sektore horrek merkatarien erroldan islatu gabeko talde-dinamika propioak ditu). Gainerakoetan, berriz, elkartekideen kopurua handitu zela ikusten dugu. Nabarmenezkoa da urte horetan ostalaritzako gremio-elkartek agertu zirela (188 establezimendu elkarturekin); etorkizunean kontuan hartu beharko da datu hori.

Nolanahi ere, esan daiteke Arabako lurraldeko gremio-asoziazionismoa oso txikia dela oro har (2023an % 5,56ko ordezkagarritasun-maila lortu zuen; % 7,48koa txikizkako merkataritzaren kasuan).

5.2. Gremio-Asoziazionismoa Bizkaian

Bizkaian, 679 salmenta-puntu zeuden guztira gremio-elkarte desberdinetan integratuta 2023an. Zifrak, alabaina, gorabehera txikiak izan zituen azken urteotan (690 2022an; 645 2021ean; edo 2020ko 767ko maximoa).

Bizkaian erroldatutako 12 gremio-elkarteetatik 10 txikizkako saltokiek osatzen dituzte; 1 handizkako saltokiek; eta 1 zerbitzu-enpresek.

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	27	606	46	679
Establezimenduak guztira	5.367	12.978	19.079	37.424
Ordezkarritasuna	% 0,50	% 4,67	% 0,24	% 1,81

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	55	565	70	690
Establezimenduak guztira	5.618	13.408	19.313	38.339
Ordezkarritasuna	% 0,98	% 4,21	% 0,36	% 1,80

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	57	525	63	645
Establezimenduak guztira	5.768	13.724	19.563	39.055
Ordezkarritasuna	% 0,99	% 3,83	% 0,32	% 1,65

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2020

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	72	643	52	767
Establezimenduak guztira	6.197	14.501	19.743	40.441
Ordezkarritasuna	% 1,16	% 4,43	% 0,26	% 1,90

Bizkaiko gremio-elkarteetako establezimendu kideen ehunekoak txikiak dira; 2023an, handizkako saltokien % 0,5 bakarrik zeuden gremio-elkarteetan integratuta; txikizkako saltokien % 4,67, eta zerbitzu-establezimenduen % 1,90.

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - BIZKAIA 2020 eta 2023									
Bizkaia	Handizkariak		Txikizkariak		Zerbitzuak		Guztira		
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	Aldakuntza 20-23
Elkartekideak	72	27	643	606	52	46	767	679	-% 11,47
Establezimenduak guztira	6.197	5367	14.501	12978	19.743	19.079	40.441	37.424	-% 7,46
Ordezkarritasuna	% 1,16	% 0,50	% 4,43	% 4,67	% 0,26	% 0,24	% 1,90	% 1,81	-% 4,34
Hazkundera, puntu portzentualak	-0,66 p.p.		0,24 p.p.		-0,02 p.p.		-0,09 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	-% 56,70		% 5,31		-% 8,46		-% 4,34		

Establezimenduen guztizko kopurua % 7,46 jaitsi zen 2020tik 2023ra bitartean, eta gremio-elkarteetako elkartekideen kopurua % 11,50.

Gremio-asoziazionismoaren guztizko ordezkarritasuna % 4,34 jaitsi zen (baina txikizkako merkataritzaren kasuan gorakada txiki bat egon zen 0,24 puntu portzentualetan), batez ere azpisektore horretan Bizkaiko establezimenduek izandako beherakadaren ondorioz.



5.3. Gremio-Asoziazionismoa Gipuzkoan

Gipuzkoan, gremio-asoziazionismoaren zifrek beste lurraldeetako en profil desberdina dute. Gremio-elkarteetako establezimendu kideen kopuruak pixkanaka handitzen joan ziren 2020tik 2023ra bitartean (2020: 1.315 establezimendu; 2021: 1.363 establezimendu; 2022: 1.584; 2023: 1.600; horietatik 1.261 txikizkako merkataritzari dagozkio).

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2023

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	123	1.261	216	1.600
Establezimenduak guztira	3.039	8.700	11.624	23.363
Ordezkarritasuna	% 4,05	% 14,49	% 1,86	% 6,85

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2022

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	110	1.245	229	1.584
Establezimenduak guztira	3.249	8.929	11.764	23.942
Ordezkarritasuna	% 3,39	% 13,94	% 1,95	% 6,62

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2021

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	27	1.132	204	1.363
Establezimenduak guztira	3.344	9.086	11.852	24.282
Ordezkarritasuna	% 0,81	% 12,46	% 1,72	% 5,61

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - 2020

	Handizkariak	Txikizkariak	Zerbitzuak	Guztira
Elkartekideak	0	1.293	22	1.315
Establezimenduak guztira	3.467	9.758	12.073	25.298
Ordezkarritasuna	% 0,00	% 12,70	% 0,18	% 5,20

Establezimenduen guztizko kopurua 2020ko 25.298tik 2023ko 23.363ra jaitsi zen, azpisektore guztietan (esate baterako, txikizkako merkataritza 2020ko 9.758 establezimenduetatik 2023ko 8.700 establezimenduetara pasatu zen).

GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - GIPUZKOA 2020 eta 2023									
Gipuzkoa	Handizkariak		Txikizkariak		Zerbitzuak		Guztira		
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	Aldakuntza 20-23
Elkartekideak	0	123	1.293	1.261	22	216	1.315	1.600	% 21,67
Establezimenduak guztira	3.467	3.039	9.758	8.700	12.073	11.624	25.298	23.363	-% 7,65
Ordezkarritasuna	% 0,00	% 4,05	% 13,25	% 14,49	% 0,18	% 1,86	% 5,20	% 6,85	% 31,75
Hazkundera, puntu portzentualak	4,05 p.p.		1,24 p.p.		1,68 p.p.		1,65 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 100		% 9,39		% 919,74		% 31,75		

Azpisektore bakoitzeko elkartekide-kopurua handitu egin zen kasu guztietan, txikizkako merkataritzan izan ezik. Kasu horretan, 1.293tik 1.261 enpresa elkartu izatera pasatu zen, 2020ko eta 2023ko zifrak konparatuz gero. Gainerako azpisektoreetan, enpresa elkartuen kopurua handitu egin zen, baina oso kopuru txikietan.

Gipuzkoako gremio-elkarteetako establezimendu kideen ehunekoak gora egin zuen 2020tik 2023ra bitartean (2020: % 5,20; 2021: % 5,61; 2022: % 6,62; 2023: % 6,85).

Ordezkarritasun orokorra % 31,75 handitu zen (% 1,65 puntu portzentualetan). Azpimarratzekoa da txikizkako merkataritzaren % 9,39ko hazkundera.

Ondorio gisa, esan daiteke Gipuzkoako gremio-asoziazionismoak eskualdeko asoziazionismoaren joera bera izaten jarraitu zuela. Ordezkarritasun orokorra egin handitu zen, baita azpisektoreetako bakoitzean ere; hala ere, kontuan hartu behar da establezimenduen guztizko kopuruaren beherakada.

5.4. Gremio-Asoziazionismoa Euskadin

Gremio-asoziazionismoak lurralde bakoitzean lortutako zifrak bezain baxuak erakusten ditu Euskadi osoan. Horrela, 2020an, gremio-elkarteetako 2.397 establezimendu kideetatik (88.989 guztira, % 2,69), 2.893 establezimendutara pasatu zen 2023an (83.320 establezimendu guztira, % 3,47ko ordezkagarritasuna).


GREMIO-ELKARTEETAKO ESTABLEZIMENDU KIDEAK - EUSKADI 2020 eta 2023											
Euskadi	Handizkariak		Txikizkariak		Ostalaritza		Zerbitzuak		Guztira		Aldakuntza 20-23
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	2020	2023	
Elkartekideak	72	150	2.110	2.117	0	188	215	438	2.397	2.893	% 20,69
Establezimenduak guztira	11.130	9.707	27.835	25.019	13.754	13.429	36.270	35.165	88.989	83.320	-% 6,37
Ordezkaritasuna	% 0,65	% 1,55	% 7,58	% 8,46	0	% 1,40	% 0,59	% 1,25	% 2,69	% 3,47	% 28,90
Hazkundera, puntu portzentualak	0,90 p.p.		0,88 p.p.		1,40 p.p.		0,65 p.p.		0,78 p.p.		
Hazkundera, aldakuntza portzentuala	% 138,87		% 11,62		% 100,00		% 110,12		% 28,90		

Gremio-elkarteen ordezkagarritasuna 0,78 puntu portzentual igo zen (2020tik 2023ra bitarteko % 28,90eko aldakuntza). Hala ere, kontuan hartu behar da establezimendu-kopurua % 6,37 jaitsi zela.

Gorakada hori azpisektore guztietan gertatu zen. Nabarmentzekoak dira, bereziki, handizkako merkataritzan (% 138,87) eta zerbitzuen sektorean (% 110,12) izandakoak.

Baina txikizkako merkataritza da gremio-asoziazionismoaren gehiengoa Euskadin.

Euskadiko asoziazionismoko azpisektoreak 2020-2023





BUEY DE BAZA TUZANCA
Corte en FRANGO
HAGA SU RESERVA

PROMOCION
CABALLO Y VINO
POR MENOS DE
29.99 € Kb.

LA OKA
CALLE DE...
100 05000
CORREO ELECTRÓNICO
LA OKA S.A.
TELÉFONO



6. Euskadiko Merkataritzako Federazioak

Atal honetan, EAEn dauden merkataritzako federazioen (probintzia-eremuko eskualdeko-elkartek eta gremio-elkartek osatuak) elkartekide-kopurua eta ordezkagarritasuna aztertuko dira, bai eta Euskadiko lurralde-eremuko konfederazioetan integratuta jardutean hartzen duten garrantzia ere.

Gaur egun, merkatarien federazioen bi konfederaziok jarduten dute Euskadi osoaren mailan: alde batetik, EUSKOMER (Confederación de Asociaciones de Comerciantes- Euskadiko Merkatarien Konfederazioa); eta, bestetik, EUSKALDENDAK (Confederación de asociaciones de comerciantes, hosteleros, empresas de servicios de Euskadi - Euskadiko Merkatar, ostalari eta zerbitzu-enpresen elkarten Konfederazioa). Lurralde-federazioen bat ez dago integratuta konfederazio horietan.

Lurralde-federazioek osatuta dago EUSKOMER. Araban: AENKOMER (Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresariak, Empresarios/as de Comercio y Servicios de Álava); Bizkaian: CECOBI (Confederación Empresarial del Comercio de Bizkaia - Bizkaiko Merkataritzako Enpresarien Konfederazioa); Gipuzkoan: FEDERACIÓN MERCANTIL DE GIPUZKOA - GIPUZKOAKO MERKATARIAK.

Lurralde-federazioek osatuta dago EUSKALDENDAK. Araba: ARABADENDAK (Agrupación de Asociaciones de Comerciantes, Hosteleros y Empresas de Servicios de Álava - Arabako Merkatar, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresa Elkarten Taldea); Bizkaia: BIZKAIDENDAK (Federación de Asociaciones de Comerciantes, Hosteleros y Empresas de Servicios de Bizkaia - Bizkaiko Merkatar, Ostalaritza eta Zerbitzu Enpresen Elkarten Federazioa); Gipuzkoan: DENDARTEAN (Gipuzkoako Merkatar, Ostalaritza, Zerbitzu Enpresa eta Autonomo Elkarten Taldea).

Atal honetan, zuzeneko elkartekideak nahiz federazioei lotutako eskualdeko nahiz gremio-elkarten bidez integratutako elkartekideak kontabilizatu dira datuak lortzeko. Ondoren, datuak iragazi egin dira, bikoiztuta zeuden salmenta-puntuak kenduz (aldi berean federazio berean integratutako eskualdeko elkarte bateko eta gremio-elkarte bateko kideak izateagatik). Datuak iragazitakoan, dagokion lurralde historikoan eta azpisektore bakoitzean dauden establezimendu guztien gaineko ordezkagarritasuna kalkulatu da. Garrantzitsua da sektorekako diskriminazio hori eta bikoiztuak ezabatu izana kontuan hartzea, konparazioak egin eta asoziazionismoaren zifrak beste eremu batzuetan nola erabiltzen diren ikusi behar bada.



6.1. Merkataritzako Federazioak Araban

6.1.1. AENKOMER. Arabako Merkataritzako eta Zerbitzuetako Enpresarien Federazioa

Arabako Merkataritzako eta Zerbitzuetako Enpresarien Federazioa (AENKOMER) 2020an 1.123 elkartekide izatetik 2023an 1.714 elkartekide izatera pasatu zen -2022an izan zuen elkartekide-kopuru handiena: 1.775-. Horrek esan nahi du ia 600 bazkide irabazi zituela azken lau urteetan.

AENKOMER 2023

	Elkartekideak	Daudenak guztira	Ordezkarritasuna
Zerbitzu-enpresak	339	4.462	% 7,60
Handizkako merkataritza	17	1.301	% 1,31
Txikizkako merkataritza	815	3.341	% 24,39
Ostalaritza	543	1.943	% 27,95
GUZTIRA	1.714	11.047	% 15,52

AENKOMER 2022

	Elkartekideak	Daudenak guztira	Ordezkarritasuna
Zerbitzu-enpresak	330	4.453	% 7,41
Handizkako merkataritza	16	1.393	% 1,15
Txikizkako merkataritza	817	3.366	% 24,27
Ostalaritza	612	1.937	% 31,60
GUZTIRA	1.775	11.149	% 15,92

AENKOMER 2021

	Elkartekideak	Daudenak guztira	Ordezkarritasuna
Zerbitzu-enpresak	397	4.430	% 8,96
Handizkako merkataritza	7	1.397	% 0,50
Txikizkako merkataritza	777	3.377	% 23,01
Ostalaritza	431	1.962	% 21,97
GUZTIRA	1.612	11.166	% 14,44

AENKOMER 2020

	Elkartekideak	Daudenak guztira	Ordezkarritasuna
Zerbitzu-enpresak	312	4.454	% 7,00
Handizkako merkataritza	10	1.466	% 0,68
Txikizkako merkataritza	564	3.576	% 15,77
Ostalaritza	237	1.994	% 11,89
GUZTIRA	1.123	11.490	% 9,77

Ordezgarritasunaren batezbestekoa 2020ko % 9,77tik 2023ko % 15,53ra pasatu zen (% 58,75eko hazkundera).


AENKOMER							
	Elkartekideak		Daudenak guztira		Ordezgarritasuna		Ordezgarritasunaren aldakuntza 20-23
	2020	2023	2020	2023	2020	2023	
Zerbitzuak	312	339	4.454	4.462	% 7,00	% 7,60	% 8,46
Handizkariak	10	17	1.466	1.301	% 0,68	% 1,31	% 91,56
Txikizkariak	564	815	3.576	3.341	% 15,77	% 24,39	% 54,67
Ostalaritza	237	543	1.994	1.943	% 11,89	% 27,95	% 135,13
GUZTIRA	1.123	1.714	11.490	11.047	% 9,77	% 15,52	% 58,75

